



II. ERANSKINA

ESKAERA, NAFARROAKO TOKI-ENTITATEEI EHIZAZAINAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK EMATEKO 2025EAN

ESKATZAILEAREN DATUAK

Toki-entitatea:	
Ehiza-barrutiaren matrikula:	IFZ/IFK:
Helbidea:	
Herria:	PK:
Telefonoa:	Helbide elektronikoa:
Banku-kontua: ES ____ - ____ - ____ - ____ - ____ - ____ - ____ - ____	

Toki-entitateek ehizazainak kontratatzeke laguntzen 2025eko deialdiarekin loturik, eskatzaileak ADIERAZTEN DU eskatutako betebeharrak guztiak betetzen dituela, eta deialdi horren oinarriak osorik onartzen ditu; horregatik, xehetasun hauen berri ematen du:

Toki-entitatearen azalera (ha):	
Ehizazain kopurua:	
Eskatutako zenbatekoa, ehizazain bakoitzeko ⁽¹⁾	
Dedikazioa (%) ⁽²⁾	

(1) Zehaztuko da soldata gordinaren edo osoaren zenbatekoa, BEZik gabe, diruz lagunduko den aldian zerbitzu-kontratuari dagokiona, deialdiaren 4. oinarriarekin bat.

(2) Ehizazainak 4. oinarrian zehaztutako zereginenez gain beste batzuk baditu, ehizari dagozkion lanen ehunekoa zehaztu. Dedikazioa eskusiboa bada, adierazi 100.

BAREMOKO IRIZPIDEAK	“BAI” edo “EZ” adierazi, dagozkionaren arabera
Toki-entitateak ehiza-barrutiaren kudeaketaren ardura dauka	
Frogatzen du azken 5 urteetan ehizatik lortu dituen diru-sarreraren % 25 baino gehiago inbertitu dituela ehiza-habitata hobetzeko	
Frogatzen du herri-lurra ehiza-habitata hobetzeko asmoz laga direla	
Toki-entitateak jarduketak egin ditu ehiza-espezieek eragindako kalteengatik	
Toki-entitateak ehizazaina zeukan deialdi honen aurretik	

Horrenbestez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren dirulaguntza ESKATZEN DU.

Eskatzaileak **ADIERAZTEN DU:**

- Eguneratuak dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Jarduera bererako ez dela beste dirulaguntzarik jasotzen ari.
- Ez duela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan onuradun izateko adierazita dauden debekuetako bat ere.
- Ez duela ehizan aritzeko zehapen irmorik edo ingurumen arloko beste arau-hauste batzuen ondoriozko zehapen irmorik, 3. oinarriko 3.d apartatuan ezarritakoaren arabera.
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari baimena ematen diola Ekonomia eta Ogasun Departamentuan eta Gizarte Segurantzaren datuak ikusteko, horrela egiazta dezan, dirulaguntzak emateko ebazpenaren proposamena egiten den unean, egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Eskaera honek biltzen dituen agirien datu guztiak egiazkoak direla.
- Baimena ematen duela eskaeran agertzen diren bere datu pertsonalak fitxategi automatikoetan sartzeko, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz erabiltzeko.

(e)n, 202_(e)ko

aren

(e)(a)n.

(Eskatzailearen sinadura)



DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

Identitatea: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Helbidea: González Tablas kalea 9, 31005 Iruña

Helbide elektronikoa: gestinfo@navarra.es

Datuen babeseko ordezkaria:

Helbide elektronikoa: dpd@navarra.es

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN HELBURUA

Datu pertsonalak tratatuko dira, datu horiekin lotutako laguntzen espedienteak kudeatzeko. Datu pertsonalak prozedura izapidetzeko eta ebazteko behar den denboran gordeko dira.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.a artikulua: interesduna ados da bere datu pertsonalak tratatzeko berariazko helburu baterako edo gehiagotarako. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.

DATUEN NAZIOARTEKO LAGAPEN EDO TRANSFERENTZIEI HARTZAILEAK

Datu pertsonalak ez dira lagako eta ez dira transferituko, lege-betebeharra egon ezean.

INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

Interesdunak eskubidea du datu pertsonaletan sartzeko, haiek zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko, kontra egiteko eta datuak eramateko. Horretarako, idatzizko eskaera igorri behar dio departamentuko Informazioa Kudeatzeko Atalari, goian adierazitako helbidera edo gestinfo@navarra.es helbide elektronikora, eta bere NANaren edo identifikazio agiri baliokidearen kopia erantsi beharko du. Halaber, interesdunek Datuak Babesteko Espainiako Bulegora jo dezakete erreklamazio bat aurkezteko, uste badute ez zaiola behar bezala erantzun beren eskaerari.

DATUEN JATORRIA, INTERESDUNAK BERA EMAN EZ DITUENEAN

Zure eskaerarako beharrezkoa bada, administrazio publikoaren eskuan dagoen informazioa egiaztatuko da.

INFORMAZIO GEHIGARRIA

Honako web-orri honen bidez: www.gobiernoabierto.navarra.es/eu